

# gaz-teak



**Getxo**  
*bizi ezazu*

Doako alea

350 zb.  
[www.getxo.eus](http://www.getxo.eus)

>> 2020ko Azaroa



## Engorileren "Lamiak" filmak GETXOEXPRESS 2020 film laburren lehiaketa irabazi du

GETXOEXPRESS film laburren lehiaketak baditu irabazleak: lehen saria, 1.000 eurokoa, Engorileren *Lamiak* lanari eman zioten; bigarrena, 800 eurokoa, Habitaciónen *Viento*rentzat izan zen; ikusleen saria, 300 euro, eta getxotar batek egindako film labur onenari saria Herriwatchen *No viene a cuentorentzat* izan zen. Euskarazko film labur onenari saria Malavistaren *Egia bazen* pelikularentzat izan zen eta Bizkaia Zubia Saria, Emakume batek zuzendutako film labur onenari Yaimaren *El brebajere*rentzat izan zen.

Urriaren 25ean Areetako Andres Isasi Musika Eskolan egin zen lehiaketa 25 taldek hartu zuten parte, eta *Ipuin bat* gaia ostira-lean, hilak 23, jaso zuten, 18:00etan, Romo Kultur Etxean. Handik aurrera, 43 ordu izan zituzten film labur bat asmatu, grabatu eta ekoizteko. Epaimahaia Iratxe Fresnedak, Ramon Bareak, Gorka Aguirrek eta Sonia Paciosek osatu zuten. Ekitaldia zuzenean eman zen lehiaketaren webgunean.

GetxoExpressek Udalarren eta Foru Aldundiaren babes du, eta Bizkaia Zubia, Metro Bilbao, Katz Estudio, Nawa Estudio eta Janire Dominguez Itzulpengileen babes du.

Informazio gehiago: <https://getxoexpress.com/> en eta sare sozialetan.



### Sexu aholkularitza 11 eta 17 urte arteko gazteentzat

Azarotik aurrera Gazteria Zerbitzua 11 urtetik 17 urtera bitarteko gazteentzako sexu-aholkularitza zerbitzu berria eskaintzen hasiko da. Segurtasun falta sexu harremanetan?, sexu bereko pertsonen erakartzen zaituzte eta ez diozu inori esan?, ez dakizu ea haurdun zauden?, ez dakizu zer egin preserbatiboa apurtzen bada?, bikote harremanean gatazkak dituzu edo harreman baten hausturak sufriarazten zaitu edo sexu erasoak jasan dituzu?... Holako eta bestelako zalantza edo ondoezak badituzu jarri kontaktuan sexu-aholkularitza zerbitzuarekin 688840356 telefono zenbakira deituz edo idatziz, eta profesional baten laguntza jasoko duzu. Hitzordua banaka edo taldeka (gehienez hiru kide) eska daiteke.

### Aire zabalean/Aire libre proiektua

Naturarekin topaketa errazteko, Gazteleku Zerbitzuak naturara irtenaldi dinamizatuak egiteko ziklo bat antolatu du, *Aire zabalean* izenekoa. Zikloak hurrengo saioak eskainiko ditu: azaroaren 14an, *Azkorri ekoarte*; azaroaren 21ean, *Bolintxu trek*; eta abenduaren 19an, *Arboretum baño de bosque*. Udalerriatik irteeta galerazita egongo balitz, Getxoko tokiak bilatuko lirake azken bien orde. Saioak diseinatu eta dinamizatzeko, Josu Belmonteren esperientzia eta ezagutzak izan dira. Orduetgia 09:00etatik 14:00etara izango da.

Proiektua 11 urtetik 17 urtera bitarteko gazteentzat da eta izenemateak Algortako Gaztelekuaren egin behar dira, 688 840 356 telefono-zenbakira deituz edo [aisibizia.hbetolaza@getxo.eus](mailto:aisibizia.hbetolaza@getxo.eus) helbidera mezu bat bidaliz.

Ruth San Cristóbal Garamendi, Udaleko Gazteria Saileko Gizarteratze Zerbitzuko koordinatzailea

### "Aniztasuna ez da arazoa, gizarte osoarentzat aberasgarria baizik"

Ruth San Cristóbal Garamendi Gizarte Hezitzailea da, Inklusioari eta Desgaitasunari buruzko Masterra du, Amesten elkartean sortzailea da eta esperientzia handia du esku-hartze sozialaren esparruan. 2006. urteaz geroztik, hirugarren sektoreko hainbat erakundetan lan egin du, eta lagundu gabeko adingabeei, immigrazioari, gizarte-bazterketari eta, bereziki, beren bizi-prozesuan dibertsitate funtzionala duten pertsonen lagundu die. Azken urteotan, espazio inklusibo berriak ikeritzen eta sortzen jardun du, pertsona guztiek lekua izan dezaten. Gaur egun, Bizkai-



ko zenbait zerbitzu eta programa koordinatzen ditu; horien artean dago udalaren gizarteratze-zerbitzua, zeinak laguntzak ematen

baitzkie dibertsitate funtzionala duten gazteei, Gazteria-arloak eskaintzen dituen gazte-guneetan parte har dezaten.

#### •Gazteak: Zer da inklusioa?

Ruth: Inklusioak pertsonen aniztasuna agerian uzten duen eta norbanakoen arteko desberdintasunak nabarmentzen dituen ikuspegi dakar. Horrela, gure ustez, aniztasuna ez da arazo bat, gizarte osoarentzako aberasgarri bat baizik. Herritar guztiek dute udalerriko bizitza komunitarioan parte hartzeko eskubidea, baina, kasu honetan, dibertsitate funtzionala duten pertsona askok ezin dute baldintza berdinetan jardun, ez baitute behar besteko laguntzarik.

#### •Zer da Gizarteratze Zerbitzua eta nori zuzenduta dago?

Dibertsitate funtzionala duten gazteei laguntza horiek ematen dizkien Zerbitzua da. Helburua da haur, nerabe eta gazteek Gazteriaren arloko zerbitzuetan, jardueretan eta programetan (hiri-udalekuak, Gaztelekuak, ikastaroak eta tailerrak, etab.) parte hartzea sustatzea eta erraztea, eskaintza guztia inklusibo eta pertsona bakoitzari egokituia izan dadin.

#### •Nola egiten duzue lan Zerbitzuan?

Funtsezko oinarrietako bat da pertsonen oinarritutako planifikazioa, hau da, dibertsitate funtzionala duen pertsonaren behar eta nahietara egokitutako laguntzak identifikatzea eta egokitzera bideratutako tekniken prozesua. Ikuspegi horrek esan nahi du pertsona duela Zerbitzuaren lehentasuna. Hasierako elkarrizketa bat egiten dugu dibertsitate funtzionala duen pertsonarekin eta haren familiarekin, jakiteko zer behar izan dezake-

ten eta lortu nahi diren helburuak eta xedeak ezartzeko.

#### •Zeintzuk dira Zerbitzuaren erronka nagusiak?

Gaur egun, oraindik ere, zaila da esperientzia inklusiboak aurkitzea dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako jarduerak eta programetan. Udal-zerbitzuetan inklusioak duen garrantziari buruzko ikuspegi zabala eskaini nahi dugu, desberdintasunen balio positibotik abiatuta, bai eta ingurune inklusiboagoak sortzeko tresnak partekatzea ere. Bestalde, zerbitzuari esker, gero eta gehiago ezagutu nahi dugu Getxon dibertsitate funtzionala duten pertsonen errealitatea.

#### •Nola parte har daiteke?

Gizarteratze Zerbitzuarekin zuzenean kontaktatu daiteke 688 691 527 telefono-zenbakiaren edo [inklusiona@getxo.eus](mailto:inklusiona@getxo.eus) posta elektronikoren bidez, eta hitzordua eskatu. Bestalde, Gazteria Sailak antolatutako jardueretan izena ematerako unean, interesdunak dituen premien berri emateko aukera eskaintzen da. Kasu horretan, Gizarteratze Zerbitzua bera jartzen da harremanetan kasuaren berri izateko eta jarduerak zehatz horretako eskariari erantzuten saiatzeko. Beste kasu batzuetan, Gaztelekuaren adibidez, askotan hezitzaileak berak ikusten du Gizarteratze Zerbitzuak pertsona hori ezagutzeko beharra dagoela. Egiten ditugun jarduerak guztiak gure sare sozialetan ikus daitezke. Facebook: **Inklusio Zerbitzua Getxo-Servicio de Inclusión.**

#### Romoko Gaztelekuaren programazioa

Azaroa

- Hilak 5, osteguna: EKINTZA: BULLYING
- Hilak 7, larunbata: IRTEERA: ESKALADA
- Hilak 11, asteazkena: TAILERRA: ORRI- MARKATZAILA
- Hilak 13, ostirala: EKINTZA: ZABALKETA
- Hilak 15, igandea: TAILERRA: GRAFFITY
- Hilak 17, asteartea: TAILERRA: a25
- Hilak 19, osteguna: TXAPELKETA: ARGAZKIAK
- Hilak 21, larunbata: IRTEERA: SAN MAMES
- Hilak 25, asteazkena: EKINTZA: ZABALKETA
- Hilak 27, ostirala: TAILERRA: GRAFFITY
- Hilak 29, igandea: TAILERRA: GRAFFITY

GureGune  
gaztelekuak

#### Algortako Gaztelekuaren programazioa

Azaroa

- Hilak 6, ostirala: TAILERRA: IRRATIA
- Hilak 7, larunbata: ASANBLADA: ABENDUKO PROGRAMAZIOA
- Hilak 10, 17 eta 24, asteartea: TAILERRA: HIP-HOP
- Hilak 13, ostirala; 26, osteguna, eta 27, ostirala: TAILERRA: BELDUR BARIK GRAFITIA
- Hilak 14, larunbata: IRTEERA: AIRE ZABALEAN: AZKORRI EKOARTE
- Hilak 21, larunbata: IRTEERA: AIRE ZABALEAN: BOLINTXU TREK
- Hilak 29, igandea: TAILERRA: KAMISETEN ESTANPAZIOA

GauEgun  
gaztelekuak